

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 286. zenbakia. 2020ko otsaila



**Zaldibarko zabortegia,  
eta orain zer?**

60



## Zatoz gurekin!

Jakingo duzueenez, aurten **Euskaraldiaren** bigarren edizioa izango da gurean. Oraingoan, 11 egunez izan beharrean, **15 egunetan** zehar luzatuko da (**azaroaren 20tik abenduaren 4ra**) eta hainbat berezitasun izango ditu. Norbanakoari garrantzia emateaz gain, **entitateen lana** ezinbestekoa izango da, hau da, banaka bai, baina taldean ere parte hartu hartuko dugu. Beraz, **herritarren partaidetza** azpimarragarria izango da.

Pixkanaka proiektua aurrera eramate aldera, **Ermuko Euskaltzaleen Sarea indartu eta handitu** dugu. Inoiz baino jendetsuago, indartsuago eta lan egiteko prest gaude. Talde anitzagoa osatu dugu adinez, generoz, eragiteko eremu ezberdinak ukituz... Bilera ireki, **parte-hartzaile, dinamiko eta laburrak** (ordu eta erdi asko jota) egingo ditugu hilabetean behin edo sei astetik behin, betiere, **asteazkenetan Lobianon 19:30ean**. Hortaz, Ermua euskalduntzeari zure aletxoa jarri nahi badiozu ez eduki zalantzarik gurera etortzeko, besoak zabal-zabalik jasoko zaitugu eta!



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amalia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Gorka Alzaa.

**LAGUNTZAILEAK:**

Tere Conde,  
Iñaki González,  
Florita Gorritxategi,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Ana Izagirre,  
Patxi López,  
Valentin Mugarza,  
Ongarai Eskola  
eta Begoña Vesga.

**ARGAZKIAK:**

Gorka Alzaa,  
BNI Armagin,  
Mikel González,  
Ines Lejardi,  
Valentin Mugarza,  
Marcelino Onandía,  
Ongarai Eskola,  
Iñaki Padreda,  
Begoña Vesga  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ibon Txurruka  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturririk ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: aratusteak.

## Hartzaren koplak

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Patxi Urkoko etorri jakun  
lehengo egunian esaten  
animali bat han ebilela  
bazter guztiak apurtutzen.  
Eskopetekin hara juateko  
pizti hori harrapatzen,  
inguru hartako baseritarrak  
ez ebela lorik egiten.  
Hara jua giñen aldra ederra  
zer ote zan hori ikusten.

Baso baltz eta Urko erreka  
sastrak genduzan jorratu,  
baiña guk ezin izan genduan  
animalirik bilatu.  
Soiñeko arropak apurtu arte  
aurrera genduan jarraitu.  
Non uste dozu, adiskidia,  
egin genduala aurkitu?  
Mañako lezan sartuta euan,  
hantxe egin genduan hartu!

Animali hau ez dakigula  
dan hartza ala basurdea,  
basamortuan honek pasau dau  
egarria eta gosia.  
Begiratuta beronek dauka  
errukarrizko plantia,  
beroni jaten emotiarren  
eskatzen dogu limosnia.  
Erruki zaitez jende txit ona,  
kendu daiogun gosia!

Animali hau atxiki bat da  
guk diru pixkat batzeko,  
horren kontura gaur arratsian  
jan da edan ondo egiteko.  
Borondaterik baldin baduzu  
jendiak guri emoteko,  
zure nagiak atara eizuz  
dozuzan sosak askatzeko.  
Poltsa hau betez bagoaz eta  
heldu da ordua afaltzeko!

## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Ines Lejardi (Errusia)

ELKARRIZKETA .....5-7

BNI Armagin

MALLABIAN ZER? .....8-9

Juan Martin Galarza taxilaria

ERREPORTAJEA ..... 10-11

Guria Zinea

ERREPORTAJEA ..... 12-13

Zaldibarko zaborteja

MOTZEAN ..... 14

Berbetan jardunaldiak

ESKOLEN TXOKOA ..... 15

Ongarai Eskolako berriak

BOTEPRONTOAN..... 16

Puri Antón

KIROLZALE..... 17

Mikel González

IRITZIA ..... 18

Hitzez adierazten ez duguna...

ZORION-AGURRAK ..... 19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA .....21

Zabortejiko luiziak eraginak izango  
ditu gure osasunean?

MARTXOKO AGENDA .22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Ines Lejardi



Urtebete igaro da Ines Lejardik Ermua utzi eta Errusiara joan zenetik. Nazioartekotze BEINT bekan parte hartzea erabaki zuen, eta pozik hartu hark eskaini zion herrialdea.

**- Erabaki erraza izan zen?**

BEINT bekarakin herrialde askotara joan zaitezke, baina azkenengo hilabeteetan argi neukan Errusiara etorri nahi nuela. Bekak 20 hilabete irauten ditu eta herrialdea jakiten duzunean, bertigo pixka bat sentitzea normala da, baina orokorrean pozik joan nintzen.

**- Nola imajinatzen zenuen herrialde hori?**

Aurreiritzi asko nituen, bai. Egia esanda, Errusia entzutean antzerako gauzak etortzen zaizkigu gehienoi burura: hotza, vodka, emakume kanonikoki "ederrak"; biztanleria nahiko eroa... Errusia da munduko herrialderik handiena, eta Mosku bera da hiririk handiena. Herrialdearen aberastasun ekonomikoa Europar aldean biltzen da, beraz, Errusiako erdialdea hustuta dago. Ge-

rra, diktadura eta krisi ekonomiko eta sozialen ondorioak ahaztu gabe dituzte oraindik, eta zuzenean eragiten dute euren izaera eta eguneroko jarreran.

**- Espero zenuen bezalakoa da?**

Hiriaren handitasunak deitu zidan arreta aurrenekoak. Ia Bizkaia osoaren hedadura dauka, eta gehiegi iruditu zitzaidan hasieran. Orain arraroa egiten zait etxetik Infrera joateko 4 minutu behar izatea! Lagunak ez dira azkar egiten, gogorak dira, baina bihotz onekoak, prozesu luzea da, eta protokoloz betea, baina adiskidetasuna lortutakoan oso leialak dira. Janaria ez zait asko gustatzen, oso kalorikoa da eta, nire iritziz, ez du oso itxura onik. Baina gaur egun hirian denetarik aurkitu dezakezu.



Ines Lejardi Moskuko Plaza Gorrian.

**- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?**

Hizkuntza oso zaila da, baina gehien harritzen naue-na komunikatzeko era da. Euskarara edo gaztelaniara itzuliko bagenitu esaldi batzuk, bortitzak eta lotsaga-beak irudituko litzaizkiguke; kontrara, kortesia forma asko dituzte. Menperatzeko oso hizkuntza konplexu eta eskergabea da, baina gutxi-ka-gutxi lortuko dut.

**- Zerbait botatzen duzu faltan?**

Batez ere lagunak, gurasoak eta txakolina.

**- Nolakoa da zure bizitza han?**

Astean zehar lana, errusiarako akademia eta ezer gutxi gehiago; normalean asteburuari ateratzen diot mami gehien. Hiri honek mila aukera eta mila asteburu ezberdin eskaintzen dizkizu, ez du axola hotza ala beroa den.

**- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?**

Gabonetan egon nintzen pilak kargatzen.

**- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?**

Ez dakit, oraingoz urte pare bat gehiago Moskun geratzea pentsatu dut, gero gerokoak.

Libe Solozabal

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Edu Fernández, lehena ezkerretik hasita, eta Iñaki Padreda, erdian.  
Eurekin batera, BNIko Ermuko eta Mallabiko beste 3 enpresariak. Argazkiak: BNI Armagin.

Edu Fernández eta Iñaki Padreda, BNI Armagin taldeko kideak:

## “Sare honetan beste enpresen komertzial bihurtzen gara”

2016ko urrian sortu zen BNI Armagin enpresa taldea, taldekideen negozio-aukerak bultzatzeko helburua duen sarea. Inguruko 15 enpresek parte hartzen dute egun, tartean Ermuko 4k eta Mallabiko 1ek. Urtarrilean 3. urteurrena ospatu zuten, eta jakinarazi zuten 6.000.000 euroko fakturazioa izan dutela epe honetan. Edu Fernández BNI Armagin taldeko sortzaileetako bat da, eta mentoreen koordinatzaile lanetan dihardu egun; Iñaki Padreda, aldiz, hasiberria da. Bi ermuar hauek badituzte taldearen izaeraren eta asmoen gaineko zuzeneko datuak.

**- Nola funtzionatzen du BNI Armagin taldeak?**

Edu: Hainbat enpresari batu, eta gure artean *networking* moduko bat osatzen dugu, lan sare bat alegia. Sare honetan taldeko enpresari guztiak bihurtzen gara taldeko beste enpresariaren komertzial. Gure kontaktuak ere partekatzen ditugu, eta zubi-lana egiten dugu bi aldeetan artean, haien arteko lehen harremana hotza ez izateko. Bide hauek baliatuz, bezero berriak lortzen ditugu kideek ordezkatzeko dituzten enpresentzat, eta diru-sarrerak handitzen ditugu.

**- Horrela jokatu ahal izateko, beste enpresariak, haien lana eta lan egiteko modua ondo ezagutuko dituzue, ezta?**

E.: Bai. Konfiantzan oinarritutako taldea da: beste kideei erakutsi behar diegu lan egiteko gai garela eta egiten duguna ondo egiten dugula.

**- Nola sustatzen duzue elkar ezagutze hori?**

E.: Ostegunero biltzen gara, 6:30etik 8:30era. Izan ere, BNIko lelo batek dio: "Zure lehiakideek lo egiten duten bitartean, zu lanean zaude", eta ordutegi honetan ezin da aitzakiarik ipini. Horrez gain, hilean birritan banakako bilerak izaten ditugu ordubetez.



**- Zuen artean lehiakortasuna sortzen da?**

Iñaki: Ez, halakoak ekiditeko lanbide-jarduera bakoitzeko enpresa bakarra dago taldean.

**- Zein motatako enpresak daude BNI Armaginen?**

E.: Enpresa txiki eta ertainak, batik bat. Enpresa guztiek parte hartu dezakete, baina BNIko kide izateak lana eskatzen du.

**- Zeintzuk dira bada egin beharreko horiek?**

E.: Hasteko, aipatu ditugun bilera horiek egitura berdina dute astero, eta prestatu egin behar dira (Power Pointak, aurkezpenak...). Enpresari bakoitzak denbora jakin bat du bere lanaz hitz egiteko, egokiak iruditzen zaizkion erreferentziak eskatzeko eta taldekideek eskatutako erreferentziak emateko. Horrez gain,

ezarrita dago, bileraz gain, bizpahiru ordu eskaini behar zaizkiola BNIri astero: erreferentziak bilatu, formazioak egin, kontaktuak aztertu...

I.: Eta azalpenak ematen dizkiogu taldeari: astean egindako lanaz eta lortutako emaitzez. Beteranoek hasiberriari laguntzen digute, aholkuak eman, jarraibideak...

E.: Argi dago sistemak funtzionatzen duela. Baina sistemak agintzen duen bezala egin behar da lan. Hortik aurrera... bakoitzak bere kontuak atera behar ditu: zenbat denbora eskaini diot BNIri (nire jardunaldi osoko ehuneko) eta zenbateko irabaziaz izan ditut BNIri esker (nire irabaziaz guztien ehuneko). Operazio horrek esango dizu taldean parte hartzea merezi dizun, errentagarria zaizun. Niri, zehazki, BNIk asko lagundu dit negozioa zabaltzen.

**- Hiru urteotan 6.000.000 euroko fakturazioa lortu du BNI Armaginek. Nola kontabilizatzen dira irabaziaz horiek?**

E.: Aplikazio bat daukagu, eta egiten ditugun lan-erreferentzia guztiak sistematan sartzen ditugu. Erreferentzia bat lan aukera bihurtzen denean, horri esker fakturatzeko den dirua sartzen da sistema horretan. Adibidez: Iñakik fatxada bat konpontzeko erreferentzia bidali dit. Kontua aurrera badoa, nik jarriko dut sistematan Iñakiri esker irabaziaz lortu ditudala, eta fakturatu dudako kopuru zehatza jarriko dut. Hiru urte hauetan egindako negozio guztiak batuta, 6.000.000 euro lortu ditugu.

I.: Diru kopuru hori, baina ez dira irabaziaz, hortik gastuak kendu behar baitira: materialak, langileak...

**- Beste enpresari bati esker irabaziaz izan dituen enpresak, nolabait eskertu behar dio?**

I.: Ez, ezin dugu inolako ordainketa, bidaiari edo opari onartu. Guztiz debekatuta dago. *Givers Gain* filosofia da gure oinarria. Hau da: ematen dutenek jaso egingo dute. Nik zuri lagunduko dizut eta zuk, ahal baduzu, niri lagunduko didazu, edo tal-

**“BNIko kidea izateko, hautagaiek gainditu egin behar dute aukeraketa prozesua”**



deko beste bati lagunduko diozu. Horrela, zirkulua osatzen goaz.

E.: Hilero lauzpabost erreferentzia ekartzen ditugu bakoitzak taldera, batez beste. Arrainak arrainontzian sartzen ditugu, batzuetan horietako batzuk hartzea tokatuko zaizu, eta beste batzuetan ez. Orokorrean, ekarpenak egiten dituenak jaso ere egiten du. Baina egia da batzuetan ez dela horrela gertatzen, pertsona guztiak ez direlako BNIrentzat egokiak eta BNI ez delako egokia pertsona guztientzat.

**- Lan egiteko eredu hau berria da?**

E. eta I.: Ez. 1985. urtean sortu zen, Estatu Batuetan, eta mundu osoan hedatuta dago. Ia 9.000 talde daude, eta 254.000 kide baino gehiago gara. Euskal Herrian,

hain zuzen ere, 12 talde daude egun. Eta guzti hauen funtzionamendua berdin-berdina da. Izan ere, BNIko kideok munduko beste edozein taldetan parte hartu dezakegu; eta, jakina, gustura hartzen ditugu ere beste taldeko kideak gure bileretan. Enpresa handiek, askotan, dirutza fakturatzen dute beste herrialde batzuetako BNI taldeen bitartez. Mundu mailan 1.300 milioi dolar fakturatu zituen BNIk 2019an.

**- Zer egin behar da taldean parte hartzeko?**

E.: Hautagaiek aukeraketa prozesua gaintitu behar dute. Ni aukeraketa prozesua egiteko arduraduna izan nintzen garai batean, eta BNIra batu nahi zuten enpresariei elkarrizketak egiten nizkien. Elkarrizketa hauetan berebiziko garrantzia du hautagaiek taldeari egin diezaioko-

keen ekarpenak. Lan jardue-  
ra bakoitzak ordezkar bat dauka gurean, beraz, galdera argia da: zer eskaini diezaioko zure enpresak BNIri zure arloko beste enpresa batek eman ezin diona? Elkarrizketa horren emaitzekin txostena egiten da, eta kideen batzordeari ematen zaio. Bost lagunek osatzen dute batzorde hau, eta haiek erabakitzen dute kide berria onartu edo ez.

**- Eta badaude enpresak prozesu hau gaintitzen ez dutenak?**

E.: Bai. Batzuetan lanbide-  
arlo bereko bi enpresa aurkezten dira, eta bat bakarrik onartu daiteke.

**- Behin onartuta, zeintzuk dira kideen betebeharrak?**

E.: Kide guztiok konpromiso batzuk hartzen ditugu, BNI talde guztietan berdinak direnak. Hasteko 8 asteko formazioan parte hartu behar dugu: taldearen funtzionamendua ezagutzeko, etika eta kalitatea lantzeko, besteak beste. Ezinbestekoa da ere bileretan parte hartzea:

huts egin kopuru jakin bat gaintitzen bada, kidea taldetik kanpo geratzen da. Oso zorrotzak gara horrekin, ezin da salbuespenik egin. Eta azkenik, kuota bat ordaindu behar da.

**- Etorkizunari begira, zer asmo duzue?**

E.: Kide kopuruan gorabeherak izan ditugu. Hasieran 30 enpresa ginen, orain 15, eta hala ere, fakturazioari eusten ari gara. Pozik gauden arren, kide gehiago izan nahiko genuke, lanbide-jarduera gehiagok ordezkariaz izatea. Izan ere BNIk 170 lanbide-jarduera ditu zehaztuta, beraz, tarteak daukagu.

**- Taldea uztea erabaki edo kanporatuak izan diren kide horiekin harremana eteten da?**

E.: Ez. Bakoitzak bere arrazoiak izan ditu taldea lagatzeko, baina oraindik erreferentziak bidaltzen dizkiegu, eta eurek guri ere. Sakonean elkar ezagutzen dugu, eta badakigu konfiantzazkoak garela.

Dorleta Vidal



Hirugarren urteurreneko ekitaldia.

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI  
www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57  
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia

Udal Euskaltegia  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Komunitateak  
**San Pelayo**  
Aholkularitza  
juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**SAGARDUI**  
poltsak  
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT  
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresia da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.  
www.zermik.com  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

Juan Martin Galarza, taxilaria:

# “Taxi batean edozer gauzari buruz hitz egiten da”

**Duela 18 urte Gereara ezkondua, taxi zerbitzua eskaintzen du Juan Martin Galarza iurretarrak Mallabian maiatzetik. 54 urte ditu eta aurretik garraiolaria zen.**

**- laz irten zen Mallabian taxi lizentzia bat lehiaketa publikora aurrenekoz...**

Bai. Ni bakarrik aurkeztu nintzen, eta baldintza guztiak betetzen nituen. Aurretik beste batek eskaintzen omen zuen herrian zerbitzu hau, baina ez dakit oso ondo.

**- Zer egiten zenuen taxia- rekin ibili baino lehen?**

25 urtez garraiolaria izan naiz, autonomoa. Krisia dela-eta kamioia kendu nuen.

**- Zeintzuk dira gehien eskatzen dizkizuten zerbitzuak?**

Batez ere gazteek deitzen didate, gauetan beste herri batzuetako jaietatik bueltatzeko. Horrez gain, aireportura edo medikura joateko, sarritan. Zerbitzu finkoak

ere eskaintzen ditut. Eusko Jaurlaritzaren bitartez, Markina-Etxebarria eta Bolibar-ko ume batzuk eskolara eramaten ditut egunero.

**- 24 orduko zerbitzua eskaintzen duzu?**

Bai. Baina asteburu gauetan prest egon arren, esker-tzen dut aurretik jakinaraztea deituko didatela, ahal den neurrian behintzat.

**- Nahiago duzu bezeroa zure ondoan esertzea, edo atzeko jarlekuetan?**

Berdin zait. Bat datorrenean, igual nahiago dut nire ondoan jartzen bada...

**- Zeri buruz hitz egiten da taxian?**

Edozer gauzaren inguruan. Jaietatik datozenek jaien gorabeherei buruz dihardute, beste batzuk herriko



Arg. Valentin Mugarza.

kontuez... Batzuetan hitz egiten da, eta beste batzuetan ez, pertsona eta momentuaren arabera.

**- Egin duzun bidaiarik luzeena eta laburrena?**

Luzeena, Hendaiara agian. Laburrena, aldiz, Mallabitik Mallabira.

**- Inoiz beldurrik izan duzu?**

Ez, ez zait tokatu. Dena den, argi daukat horrelako egoera batean nire bizitza dela garrantzitsuena.

**- Lan bakartia da?**

Bai, baina ohituta nago errepidean bakarrik ibiltzen.

**- Zer da lan honetaz gehien estimatzen duzuna? Eta gutxien?**

Gustatzen zait lan lasaia dela, eta nagusirik ez izatea. Txarrena, ordutegi falta.

**- Zer aurreikuspen dituzu?**

Aukera berriak heltzear daude, auzotaxia jartzeko asmoa dagoelako. Dena den, erretiratzeko beste irabaztea da nire nahia, besterik ez.

Dorleta Vidal



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com



Menuak. ospakizunak...

Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533

**DROGETEN** ITTURI  
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Aldizkaria doan  
jaso nahi duzu?

943 179350  
688 632876  
drogeten@gmail.com

**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS


- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



## DAMARIS PANEK EGIN DITU ARTISTA-LIBURU BATEKO ILUSTRAZIOAK



Azaroan argitaratu zen *Sandro Penna. Bilduma bat* liburua. Poeta italiar honen 105 olerki euskaratu ditu Iñigo Astiz idazleak, eta Damaris Pan artista mallabitarrak unibertso poetiko honekin bat egiten duten marrazkiak sortu ditu. Naiz.eus webgunean irakurri daitekeen bezala, Damarisek orri zuria eta arkatza baliatu ditu. “Marrazki autonomoak dira –azaldu du–, ez ditut irudiak egin poema horiek ilustratu nahian”, baina horien bidez, Pennaren unibertso poetikoa iradoki nahi izan duela baieztatu du, harekin bat egin.

## IZARO ABESLARIAK *LIMONES EN INVIERNO* DISKOA KALERATU DU



Gehien saldu diren diskoen estatuko zerrendan, bigarren postuan dago Izaroren *Limones en invierno*, abeslari mallabitarraren 3. lana. Aurreko diskoetan bezala, euskarazko, gaztelaniazko eta ingeleseko kantuak batu ditu oraingoan ere, eta *Invierno a la vista* da aurrerapen abestia, Xael López abeslari galiziarrekin grabatuta. Besteak beste, Baionara, Madrilera, Buenos

Airesera, Montevideora eta Santiago de Txilera helduko da Izaroren ahotsa, datozen hilabeteotan egingo duen birari esker. Beste alde batetik, Musika Independentearen MIN sarietako hautagaietako bat da 4 kategoria ezberdinetan: Artistarik Okena, Urteko abestia (*Invierno a la vista*), Bideoklip Okena (Ander Merino eta David Olariagaren *Invierno a la vista*) eta Zuzeneko Okena (Izaro agur season 2019). Martxoaren 11n izango da sari banaketa.

## OTSAILAREN 27AN HASIKO DA XVII. BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

Aurtengo txapelketaren aurkezpena otsailaren 26an egingo da Trabakuan, eta 27an lehen norgehiagoka burutuko da, 21:15ean Mallabiko frontoian. Estreinako saio honetan Mata-Prieto / Altuna-Aldabe eta Murua-Ibarloza / Nazabal-Cuairan pilotariak jokatuko dute. Antolatzaile lanak burutzen dituen Mikel Garciak azaldu duenez, aurreko urteetan bezala, 24 jokalarik hartuko dute parte txapelketan, eta bi taldetan banatuta egongo dira. “Talde bakoitzean 6 aurrelari eta 6 atzelari egongo dira, eta denek jokatu dute denekin. Horrela, nahiz eta binakako txapelketa izan sailkapen indibiduala daukate pilotariak”, dio Mikelek. Gaur egunera arte, txapela irabazteak profesional mailara igotzeko aukera eman die txapeldunei.

## MARTXOAREN 7AN JOKATUKO DA EMAKUMEZKOEN GOMAZKO PALAKO FINALA

Udalak antolatutako txapelketa honen finalaurrekoak otsailaren 29an burutuko dira, 17:00etan, Mallabiko frontoian. Sailkatzen diren pilotariak martxoaren 7an lehiatuko dira finalean, ordu eta leku berean.

## GUEÑES-ITSASO AUTOPISTA ELEKTRIKOA ERAIKITZEKO LANAK GELDIARAZI EGINGO DIRA



Red Eléctrica de Españak, REEk, bertan behera utzi behar du Gueñes eta Itsaso bitartean eraikitzen ari zen goi-tentsioko linea, Bizkaiko zatian behintzat. Proiektu honen kontra, hainbat alegazio egin dira azken urteotan, baina atzera bota dituzte guztiak, linea interes publikokoa zela argudiatuz. Azkenean, ingurugiroarekin lotutako alegazio bat onartu dute. Izan ere, Lemoa eta Igorre artean sai zuriaren 3 habi daude, eta goi-tentsioko linea eraikitzean, hegazti horren habiak egiteko esparrua galdu egingo zen. Sai zuria babestu beharreko espeziea da, mundu, Europa eta estatu mailan. Bizkaiko Foru Aldundiak hegazti nekrofagoen kudeaketa plana onetsi zuen 2015ean (tartean, sai zuria dagoela), eta plan horren arabera “kontserbazio neurri bereziak hartuko dira euren habitatetan, zertarako eta hedatuta dauden aldeetan horien bizirautea eta ugalketa bermatzeko”.

Goi-tentsioko linea elektrikoa eraikitzeke lanak bertan behera geratu behar dira, urtarrilaren 14an argitaratutako Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren 422/2020 foru arauaren aginduz.

Mallabiko EH Bilduk erabaki honen garrantzia azpimarratu zuen bizilagunekin egindako bilera batean. Halaber, lanak geldiarazteko alkate-dekretua egitea eskatu dio Mallabiko Udalari eta laguntza eskaini dio.

Goi-tentsioko linearen kontrako desadostasuna eta lanak gelditzeko eskaera egiteko, Areatio auzoko bizilagun eta herritarrek bildu ziren urtarrilaren 12an (argazkian).

Dorleta Vidal



## GREGORIO TXURRUKA URIARTE

2020ko otsailaren 21ean  
83 urte zituela

**EUSKAL BIRUSEKO LAGUNAK**



# Guria Zinea akordura ekarriz

**Gaur egunean erabilera anitzeko Miguel de Unamuno gizarte-zentro bezala ezagutzen dugun espazioa zinema legez sortu zen. Ondorengo lerroetan bere hasiera eta geroagoko nondik norakoak berri.**

**G**ipuzkoa etorbideko 34 eta 36 peoren arteko behe alde guztia hartzen zuen eraikinak. 1966 urtean jarri zuten martxan lau bazkideren artean: Fernando eta Jose Luis Etxebarria anaia eibartarrak, eta Valentín eta M<sup>a</sup> Ignacia Careaga andra-gizon ermuarrak.

Fernandok gogoratzen duenez, “terrenua M<sup>a</sup> Ignacia zan, geure lehengusina eta Valentinen andria zana. Solua eta ortua errentan emonda zeuazan eta Motxuk erabiltzen zitxuan. Galdakano kontratista batzuk bertan etxiak eitzeko asmua zeken eta Don Teodoro abadeak esan zoskun Sallabente al-dian ez zeuala zinerik eta ondo egon leikiala. Orduan te-lebisiñorik be ez zeuan eta

zeozer jartzera animau gihan”.

Hasierako proiektua 1963ko urrian egin zen, M<sup>a</sup> Ignaciaren eskariz. Madrileko Fernando de Terán arkitektoak sinatuta, 1.170m<sup>2</sup>ko azalera eta 872 jarlekuko espazioa aurreikusten du.

Zubibarraia izeneko lur-orubean zinematografo bat eraikitzeko lehen eskaera 1964ko urtarrilean luzatu zitzaion Udalari. Irekiera eskaeraren dokumentoak, ostera, 1965ko azaroaren 10eko data du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean astebete lehenago argitaratu ostean.

## **Ikusle ororentzat**

Proiektatu zen lehen filma *Molly Brown siempre a flote* izan zen; mordotxoa etorri ziren haren atzetik. Fernando Etxebarriaren akorduz “gure



Gipuzkoa etorbideko Guria Zinea, bere burdinezko pertsiana eta kartel argidunarekin.


aitxak kondiziño bakarra jarri zeskun: ‘Pelikulekin kontuz!’. Ezin zian inmoralak izan. 3R eta 4R-rik ez zeuan han, danak ziran *Todos los públicos!* Don Teodoron bixartez Tolosan zeuan distribuidora batekin jarri giñan hartu-emonian, parroki-zinietara pelikulak ekartzera dedikatzen zana. Hillian behin juaten gintzazen pelikulak aukeratzera eta sarritxan Don Teodoro be etortzen zan gurekin autuan, bera Zinema Ermuarako ekartzeko”.

Alberto González 13 urtez, zabaldu zen egunetik itxi zenera arte izan zen bertan zine-operadore, eta bere egin-beharraren gainean galdetuta, gogoratzen du zelan “konprobau bihar izaten neban pelikulia ia osorik zetorren. Lonazko zakuetan, estutxe metaliko batzutan sar-

tuta zetozen zintak, enroilauta. Normalena izaten zan ordu biko pelikula lau estutxe haundi eta beste txiki baten etortzia batuta. Zintok karrietara pasau bihar ziran eta honek proiektatzeko bi makinetara katitxu”.

Operadorea, honen laguntzailea, bi akomodadore, beste horrenbeste garbitzaile, atezaina, takilleroa eta gozoki-saltzailea ostegun gauero, eta larunbat eta igandetako hiru proiektzioetan aritzen ziren, fin-fin.

José López gozoki-saltzaile gisa aritu zen urteetan eta ederto gogoratzen ditu ordukoak, “batez be gozokiak eta izozkiak saltzen genduzan. Oin, zuritu bako pipa eta kakahueteak debekatuta zeuazen, jarleku artian azalok sartu eta garbitzia itzelian kostatzen zala-



Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

ko! Hasieran etxian gordezten neban generua; gero zinian bertan. Burdinezko hezi korredera batekin ixten zan sarrerria eta granujak, indarrez, haxe zabaltzen ahalegintzen ziran, geure txutxerixok ohosteko”.

Ze pelikula mota proiektatzen zen galdetuta, Alberto eta Josék biak aipatzen dituzte Oestekoak, El Gordo y El Flaco eta Cantinflas. Jen-

de asko ekarri zutenen artean Albertok gogoan ditu “hori romanuon luziori, *Quo Vadis*, *El hundimiento del Titanic*, *Tiburón*... Pornorik-eta ez!”. Butaketatik noizean behin ere txistua jotzen zutela esaten digu “geuk, konfundiduta, entzute ez dala ipiñi eta behian fiii, fiii! Edo igual kuadrúa pantailan txarto agertzen zala, holan osuan barik, zati bat baka-

rrik. Sarririxan, pelikulia zaharra-edo izan eta klakklak, apurtu eitxen jakun; amatau dana, etendako alde bixei azetonia ein kurioso-kurioso eta inkauta geratzen zanez, segi pelikuliaz! Beste batzutan jentia ez zan gustura geratzen, beti be ez zan-eta azertatzen, ze distribuidoriak lotietan ipintzen zitxuan pelikulok, hil guztian honetxek eta danen gustura be ezin izan!”.

Urteekin apurka-apurka gainbehera etorri zen: mantenua, gero eta haundiagoa; etxeetan, zuri-beltzeko telebistak; beheruntz diru-eteekin... 1979 urtean itxi egin zen. Gerora, 1986an, Udaletik erosteko eskeintza jaso zuten jabeek eta akordioa adostu, Fernandoren esanetan “aiuntamientuak ipinitxako prezio eta paguak zelan egin azetau genduzan”. Ordainketa guztiak eginda, 1990ko maiatzaren 17an gauzatu zen salerosketa.

#### Kulturaren gune

Ateneo kultural bezala lehenengo eta Miguel de Unamuno zentro zibiko legez gaur egunera arte, hainbat antzerki emanaldi, desfile, erakusketa, kontzertu zein kirol eta kultur jarduera izan dira txalotuak.



Proiektatutako aurreneko pelikularen kartela.

2007an Lobiano inauguratu izatea eta Udalak parrokiarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Ermua Zinema berriatu ahal izateak, ekitaldiz umezurtz laga zuen espazioa. Iratxoko, Sallabenteko familien elkartearen ekimenez, berriro berreskuratuko da auzoarentzat; 2018koak dira azken berriztapen eta egokitzapenak. Gaur egun, umeentzako parke, Irulitxa fanfarrearen entsairoleku, Iratxoko elkartearen egoitza, elikagaien bankuaren biltoki eta nagusien bilgune ere da. Bizibizirik dirau!

Estibalitz González



Erdikokalen Guriaren kartelera, argazkiaren eskumako aldean.

# Plan B

Coffee Lounge

Gin & Beer

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: info@enolimp.es  
48620 Ermua (Bizkaia)

---

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

## PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
[info@palaciosfontaneria.com](mailto:info@palaciosfontaneria.com) / [www.palaciosfontaneria.com](http://www.palaciosfontaneria.com)

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

**Horacio Decoración**  
TAPIZERIA · ALTZARIAK · OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

# Zaldibarko zabortegia, hondamendi baten kronika

**Otsailaren 6an ezbeharra gertatu zen Zaldibarko Verter Recycling zabortegian. Haren ondorioak latzak, oso latzak. Luiziak bi behargin lurperatu zituen, eta haien gorpuak ez dira oraindik agertu. Airearen kutsadurak, aldiz, inguruko herrietako bizilagunen haserrea piztu du, babes eta informazio falta salatzen duten bitartean.**

Otsailaren 6an, 16:00ak jotzean, Zaldibarko Eitzaga auzoaren gainean dagoen zabortegian lur-jausia egon zen. Hainbat norabidetan zabaldu ziren hondakindegiak gordetzen zituenak. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, 500.000m<sup>3</sup> inguru mugitu ziren euren lekutik, eta 3.000 eta 4.000m<sup>3</sup> artean AP-8 autopistako lau erreietan zabaldu ziren. Errepidearen itxieraren albisteari, beste batek jarraitu zion, larriagoa. Lurrak bi langile irentsi zituen: Alberto Sololuze markinarra eta Joaquín Beltrán zallarria.

Haiek topatzeko lanak behar hasi ziren, eta larrialdi zerbitzuetako 60 bat erantzaina eta suhiltzaile aritu ziren horretan, inolako babes-ekiporik gabe. Baina otsailaren 7an, 01:00ak inguruan, zabortegitik alde egin behar izan zuten denek: Osalaneko teknikariak amiantoa zegoela ohartu eta gero. Eta ez kopuru txikian.

2017an Verter Recyclingek 2.954 amianto tona aitortu zituen, 2018an 2.592 tona eta 2019an 4.235. Izan ere, hondakin ez-arrisksuak zabortegia izan arren, Europako araudian oinarrituta (Kontseiluaren 2003/33/EE Europako Erabakia), amiantoa duten eraikuntza-materialak jaso ditzake. Guztira, 2,8 milioi tona hondakin gordetzen zituen zabortegiak, eta horietatik %0,57 amianto ziren.

## Suteak

Ostiraleko goiz horretan, denbora luzean martxan jarraituko duen ingurabidea ipini zen autopistan. Eta 15:00etan erreskate-taldea martxan hasi zen berriro ere. Bi langileen kotxeak topatu zituzten, lur-jausiak arrastatu zituenak. Eta 23:00ak aldera sutea piztu zen zabortegiko goiko aldean. Jakinarazi zuten, suhiltzaileek ez zeukaten modurik bertaraino heltzeko, eremuaren ezezagokortasunagatik.



Zabortegia otsailaren 20an. Arg.: Gorka Alzaa.

Oztopoak ez ziren hor bukatuko. Larunbatean, otsailak 8, euria zela-eta, bertan behera utzi behar izan zuten langileen bilaketa. Ordurako sutea ke pozointsua zabalzen hasita zegoen, dioxina eta furanoz betea, handik egun batzuetara jakinaraziko zuten bezala.

Egun honetan, Ingurumen Sailburuordetzak ohar bat kaleratu zuen, onartuz 2019ko ekainean egindako ofiziozko bisita batean, 23 arau hauste topatu zirela za-

bortegian, tartean “metanoa neurtzeko gailuek ez zutela behar bezala funtzionatzen, zabor isurketa batzuk ez zirela behar bezala egiten, eta baimendutakoa baino eremu handiagoa hartzen ari zela zabortegia”. Izan ere, Verter Recycling 2012an zabaldu zen, eta hurrengo 35 urteetan zabalik egotea aurreikusten zen (2047ra arte). Baina zaborra jasotzeko zeraman erritmoari erreparatuta, beste bi urteko bizia geratzen zitzaion.

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Bitsi-denda Tailer propioa Etoju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**mari asun**

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Egoeraren larritasuna ikusita, **otsailaren 9an**, igande, larrialdi mahaiaik lehen agerraldia egin zuen Zaldibarren. Eta beste alde batek, Eitzagako auzotarrek bederatzi eskaera jasotzen zituen agiri bat adostu zuten, tartean, zabortegia ixteko eta hango gai toxiko guztiak ateratzeko; eta dagokionari erantzukizunak hartzeko.

**Airea eta ura**

Lehen egunetako informazio ezak bizilagunak aztoratu eta haserretu zituen. Baina astelehenean, **otsailak 10**, hainbat politikarik prentsaurrekoak eskaini zituzten: Segurtasun Sailburu Estefanía Beltrán de Herediak eta Ingurumen Sailburu Iñaki Arriolak. Azken honek ziurtatu zuen ura eta airearen kalitatea ona zela. 16:00etan Iñigo Urkullu lehendakariak ere komunikabideak deitu zituen, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak apirilaren 5era aurreratuko dituela jakinarazteko.



Otsailaren 10eko manifestazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiak azaldu zuen AP-8an sei metroko altuera duen horma eraikiko duela, luiziei aurre egiteko. Eta Zaldibarko zabortegiko hondakinak Malla-biko eta Zallako zabortegietara eramateko asmoa zegoela jakin zen. Suteak itzali gabe jarraitzen zuen. Eta egun berean manifestazioa egin zen inguruko herrietan, Ermuan ere, “Zaldibar argitu, orain!” lelopean.

**Otsailaren 11n**, asteartea, langileak bilatzeko lanak etenda zeuden. Aurrera jarraitu ahal izateko lurra egonkortu behar zelako, eta geologoek laguntzarekin horretan ziharduten erreskate taldekoek. Bitartean, Durangoko Instrukzio Auzitegiak aurretiko eginbideak hasi zituen.

**Otsailaren 12an**, asteazkena, lehendakaria zabortegira joan zen, lurra egonkortzeko eta sutea itzaltzeko bideak bilatzen zituzten bitartean. Hurrengo egunean, **otsailaren 13an**, osteguna, usainez eta toxikoez hitz egiten hasi zen. Elena Moreno Ingurumen Sailburuordeak azaldu zuen haizean parametro batzuk igota zeuden arren, ez zirela arriskuatsuak, eta adierazi zuen laginak Madrilgo laborategi batera eramaten ari zirela, eta barazkiak eta animaliak ere analizatuko zituztela. Lehen aldiz, libiatuak ere aipatu ziren, hau da, hondakinek kutsatutako urak.

Ostiralean, **otsailak 14**, kontraesanek jositako informazio gandosian murgildu ziren herritarrak. Dioxinak eta furanoak denon ahotan. Analisisien arabera, suteak



Zabortegia otsailaren 20an. Arg.: Gorka Alzaa.

eragindako kea substantzia kantzerigeno hauek askatzen ari zen. Eta normalean baino 40-50 aldiz handiagoa zen euren kontzentrazioa airean. Prebentzio neurriak hartzeko eskatu zuten agintariek: “Ez egin kirola aire zabalean, eta itxi etxeko leihoak, batez ere gauean”. Mezua herritarren buruan bueltaka gau eta egun. Suminduta. “Nola liteke ezbeharra jazo eta handik 8 egunera neurriak hartzeko abisua ematea?”, sinistu ezinik. “Datorren ostegunean, datozen egunetako analisisen emaitzak”.

**Bilera irekia**

Larunbatean, **otsailak 15**, milaka lagun bildu ziren Eitzagan, Ermutik, Zaldibartik, Eibartik eta Elgetatik etorrita. Desagertutako Alberto Sololuzeren iloba Helen Alberdik ere salaketa-ekitaldi horretan parte hartu zuen.

Astelehenean, **otsailak 17**, zabortegiko hondamendian lanean ari den agenteen batzorde teknikoarekin bilera irekia egin zen herrian. Ermua Antzokia gainezka. Ia 3 ordu iraun zuen bilerak, eta emandako pausuen, eta ura-

ren eta airearen kalitatearen inguruan hitz egin zen. Entzuleek erantzun argiak nahi zituzten: bai ala ez, zirt edo zart, %100eko bermea. Baina galdera batzuk ez zeukaten erantzunik. Ez behintzat bertaratutako teknikoek ezagutzen zituztenak. Edo eman zezaketenak.

Asteartean, **otsailak 18**, suteak itzaltzat eman ziren, oraindik ere kea zeriola. Eta CSIC laborategiko aditu batek esan zuen gehigizko alarma sortu zela, toxinen kopurua oso txikia zelako.

Ostegunean, **otsailak 20**, hilaren 10etik 16ra bitarteko laginen emaitzak heldu ziren. Prebentzio neurriak baztertzeko aholkua eman zuen Iñaki Berraondo Osasun Sailburuordeak arratsaldean. Irizpidea: sutea itzalita zegoela (eta ez analisisen emaitzak). Baina, hara! 22:00ak aldera, zaborrek sua hartu zuten berriro ere. **Otsailaren 21ean**, ostirala, sua itzali zuten, baina Eusko Jaurlaritzatik ez zuten baztertu berriro piztea. Eta orain zer?

\**Drogeteniturri* inprimategira joan orduko, batutako azken dautak.

Dorleta Vidal

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77  
ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Desiak**  
PSIKOLOGIA  
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy  
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

**XIII PIROPO LEHIAKETA  
MARTXAN DAGO**

Ermuko Udaleko Euskara Sailak aurtengo piropo lehiaketari hasiera eman dio, eta martxoaren 11ra arte zabalik egongo da. Parte hartu nahi dutenek, euskaraz idatzitako piropoa aurkeztu beharko dute Udal Liburutegian, euskara@udalermua.net helbidean edota 616 02 75 85ra Whatsapp bidalita. Hiru kategoria daude (14 urtetik beherakoak, 15 eta 17 urte bitartekoak, eta 18 urtetik gorakoak), eta bakoitzari sari ezberdinak dagozkie. Epaimahiak kontuan hartuko ditu besteak beste: originaltasuna, sormena, luzera, itzulpena edo moldaketa ez izatea, eta iraingarria edo sexista ez izatea.

**BERBALAGUNEKO TALDEETAN  
PARTE HARTZEKO AUKERA**

2019/2020 ikasturteko Berbalagun egitasmoak aspaldi ekin zion bideari, eta dagoneko zehaztuta daude edizio honetako 17 berba-taldeak non eta noiz bilduko diren. Horietakoren batean parte hartu nahi dutenek, aldezturik eman beharko dute izena: 663 07 04 92 telefonoan edo ermua\_berba@aeek.eus helbidean.

**Ermuan goizez:**

Karabixa. Astelehena, 11:00.

Hannigans. Asteartea, 11:30.

Beer Station. Ostirala, 10:00.

**Ermuan arratsaldez:**

Arkupe. Asteazkena, 16:00.

Beer Station. Asteazkena, 20:00.

Jai. Osteguna, 18:00.

Herga. Ostirala, 17:30.

Karabixa. Ostirala, 18:30.

Karikato. Ostirala, 20:00.

**Gurasolagun:**

Ongarai Eskola. Astelehena, 16:00.

Anaitasuna Ikastola. Asteartea, 16:00.

Eskolabari Eskola. Asteartea, 17:00.

San Pelayo Eskola. Asteazkena, 17:00.

San Lorentzo Eskola. Osteguna, 16:00.

San Pelayo Eskola. Osteguna, 17:00.

**Mallabian:**

Jubiletxe taberna. Ostirala, 19:00.

Mallabiko Eskola. Ostirala, 16:15.

**Jon Maiak eta Uxue Alberdik parte hartuko dute Berbetan Jardunaldietan**

Martxoaren 4an eta 12an burutuko dira XXI. Berbetan Jardunaldiak, eta 2 ekitalditan parte hartzeko aukera egongo da. Martxoaren 4an, asteazkena, *Berriak jaiotzen* liburuaren aurkezpen-solasaldia egingo du Jon Maiak (Lobiano Kulturgunean 19:00etan). Hilaren 12an, osteguna, *Kontrako ezarririk* liburuan oinarritutako bertso-saio literarioa eta tertulia eskainiko dute Uxue Alberdik eta Ane Labakak. Maite Berriozabal izango da gai-jartzailea (Lobiano Kulturgunean 19:00etan). Martxoaren bukaeran, azkenik, zehaztu gabe dagoen ekitaldia burutuko da Ermua BHI Instituan, bertako ikasleei zuzenduta. 2000. urtean ekin zioten bideari Berbetan Jardunaldiek, eta hauen helburua da euskararen erabileraren inguruko gogoeta eta iritzirik trukaketarako gunea izatea. Antolatzaileak dira Euskal Birusa, Udal Euskaltegia, Kaltxango AEK Euskaltegia, Anaitasuna Ikastola eta Eskolabari Eskola. Babeslea, Ermuko Udala.

**Lesboseko errefuxiatuen alde janari eta dirua biltzeko egitasmoa abiatuko da**

Jesus González ermurrak eta Mireia Alonso eibartarrak (herri bien merkataritza eta hostalarien elkartearen laguntzarekin) arroza, dilistak, konpresak, pardedak eta toallitak jasotzeko kanpaina jarriko dute martxan martxoaren 16tik 21era. Greziako Lesbos irlan errefuxiatuta dauden aldeko proiektua da, eta Zaporeak elkartearen bitartez bideratuko da jasotako guztia. Iaz 4.000 kilo lekale eta 4.000€ jaso ziren, eta aurten kopuru horiek gaintitzea espero dute, Alonsoren esanetan, "inguruko enpresekin egindako hitzarmenei esker". Gainera, errifa solidarioak ipini dituzte salgai, €1ean, eta afariak irabazteko aukera egongo da. Martxoaren 21ean edo 22an (Eibar-Athletic derbia jokatzeko den egun berean) pintxo-pote solidarioa egingo da Eibarren. Proiektu honekin kolaboratu nahi dutenek, eibarermuasolidario@outlook.es helbidera idatzi dezakete.

**Santa Ageda bezpera ospatu zen Ermuan**

Ohi bezala, santa-eskean atera zen abeslari eta musikariz osatutako talde herrikoi bat. Santa martiriaren koplez gain, egun horretako ibilbidean abesten diren beste kantu herrikoi batzuekin alaitu zen kalejira. Ermua Harrera plataformari eman zitzaion batutako jasotako dirua.



**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

**ENKARGYAK  
943 030 299**

## Elikadura tailerra egin zuten ikasleek Eibarren

Urtarrilaren 23an eta 24an, 4. mailako ikasleok Eibarrera joan ginen elikadura tailerra egitera. Bertan, elikaduraren inguruan hainbat gauza landu genituen, hala nola nutrizio piramidea, elikagaien multzoa, jakien etiketak eta nutrizio semaforoa, besteak beste. Gero, ikasitako guztia praktikan jarri genuen gosari, bazkari eta afari orekatu eta osasungarriak prestatzeko. Dendan zehar primeran pasatu genuen produktuak aztertzen eta aukeratzen proposatutako menuak egiteko. Gainera, hamarretako gozoa, oparitxo bat eta diploma dotore bat eman zizkiguten. Zein ondo!




## Eskolako umeak sukaldari bihurtu ziren

4 eta 5 urteko umeak erre-zeta gozoak egiten ibili dira egun hauetan gelan. 4 urteko gelan txokolatezko pastela prestatu zuten; eta 5 urtekoan, arrautza frijitu. Primeran pasatu zuten gure sukaldari gazte txoek!! Gainera, eskolan kozinatutako erre-zeta etxera eraman zuten familiarekin egiteko.



# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
 699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

# P U R I A N T O N

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzarora?**

Kalean jolasten beti: soka-  
rekin, gomarekin eta botera.

- **Eta gaztarora?**

Tabernaz taberna ibiltzen  
ginen, Ermuan batez ere. El-  
goibarren eta Durangon ere  
bizi izan naiz.

- **Umetan zer izan nahi zenuen?**

Dantzaria eta, batez ere,  
abeslaria. Baina nire ahotsa  
ez da batere ona!

- **Eta nola heldu zen ile-  
apainketa zure bizitzara?**

14 urterekin Ermuko ile-  
apaindegi batean hasi nin-  
tzen lanean, eta asko gusta-  
tu zitzaidan.

- **2000ko otsailaren 24an  
inauguratu zenuen Malla...**

Bai, antzina hemen zego-  
en baserriko ugazabaren ize-  
na ipintzea pentsatu nuen.

- **Zer da lan honetan  
gehien eta gutxien gusta-  
tzen zaizuna?**

Dena dut gustuko, lan ad-  
ministratiboa kenduta.

- **Kaletik zoazenean, jen-  
dearen orrazkeran jartzen  
duzu arreta?**

Bai, uste dut nahi barik  
egiten dudala. Begiratzan  
dut gauzak nola eginda dau-  
den, ideiak hartzen ditut...  
Kalean asko ikasten da.  
Arratsaldea Bilboko terraza  
batean eman, esaterako,  
eta denetik ikusi dezakezu.  
Inspirazioa!

- **Zer egiten duzu aisial-  
dian?**

Inguruko mendietara joa-  
tea maite dut: Erlo, Aizkorri,  
Anboto... Urko oso gogorra da!



**Leonen jaio zen duela 54 urte, baina urtebeterekin etorri zen Ermura. Hiru neba-ahizpa ditu, bera baino gazteagoak. Bi alaben ama da, eta Charlie txakurra du lagun handia. 14 urterekin hasi zen ile-apaindegi baten lanean, eta 20 urte egin berri dira berea zabaldu zuenetik.**

- **Bakarrik edo lagunduta joan ohi zara?**

Charlie txakurrarekin.

- **Umetatik dakizu euskara?**

Ez, 31 urterekin hasi nin-  
tzen Euskaltegian, eta urte  
pare bat egin nituen. Barne-  
tegietara ere joan nintzen  
eta, ikasitakoa ez ahazteko,  
Beralagunen eman nuen  
izena duela 10 bat urte.

- **Bidaiatzea gustuko?**

Ez zait gustatzen maleta  
egitea baina, aukera izanez  
gero, Australiara joango nin-  
tzateke.

- **Musikazalea zara?**

Bai, denetik entzuten dut,  
baina euskal taldeak dira  
gehien gustatzen zaizkida-  
nak: Su Ta Gar, Ehun Kilo, EH  
Sukarra, Gatibu... Zuzenean  
ikusten ditut!

- **Telebista, zinea, antzer-  
kia...**

Azkenaldian telebista, se-  
rieak batik bat.

- **Irakurtzen duzu?**

Ez daukat bista ona, eta  
ez zaizkit betaurrekoak gus-  
tatzen. Gaur egun hondar-  
tzan bakarrik irakurtzen

du, argitasun handia dagoe-  
nean.

- **Eguneko zure momentua?**

Taberna batean gosald  
ohi dut, eta une berezia iza-  
ten da. Eguerdiak ere, txa-  
kurrarekin buelta bat emat-  
en dudanean.

- **Bertuterik?**

Enpatia sentitzen dakida-  
la.

- **Akatsik?**

Askok kostatzen zait ohetik  
jaikitzea.

- **Zerk eragiten dizu  
barrea?**

Askotan nire buruak.

- **Eta zerk haserretu?**

Alabekin nahi dudana lor-  
tzen ez dudanean. Etengabe-  
ko gatazka hori gogorra da!

- **Bizitzako egunik zorion-  
tsuena?**

Alabak jaio zirenean.

- **Hartu duzun erabakirik  
zailena?**

Nire ezkontza haustea.

- **Zerbait egin ez izanaren  
pena duzu?**

Puenting-a. Dagoeneko ez  
naiz ausartzen...

- **Teknologia berriak...**

Gorrotu ditut.

- **Puntuala zara?**

Lanean bai, baina oroko-  
rrean ez.

- **Berriro jaioko bazina...**

Seguruena berdina egingo  
nuke dena.

- **Zer diozu Zaldibarko  
zabortegiaz?**

Ez nekien hor zabortegia  
zegoenik. Eta putakeria da,  
baina uste dut gertatu dena-  
ri esker jakingo dugula be-  
netan zer geneukan bertan.

Dorleta Vidal

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika  
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51



Mikel González, Ermua futbol-taldeko entrenatzailea:

## “Estimatzen dut ikustea taldeak alor guztietan eboluzionatzen duela”

**Koskaz koska heldu da Ermuko lehen taldeko entrenatzailea izatera. Mikel González ermuarra jokalaria izan zen hasieran, bigarren entrenatzailea ostean, eta duela bost urtetik hona klubeko lehen taldearen gidaritzan dihardu.**

**- Zer dela-eta hasi zinen entrenatzen?**

Txikitan, taldetako liderrak arretaz begiratzeko nintuen, deigarri gertatu izan zait beti. Gainera, asko gustatzen zait kirola orokorrean, bereziki talde kirola. Ni txikitatik futboleant aritu nintzen, osagai guztiak nintuen entrenatzailea izaten bukatzeko.

**- Zeintzuk talde entrenatu dituzu?**

San Lorenzo Eskolako umeak entrenatzen hasi nintzen 2007an, eta Ongarai Eskolakoekin aritu nintzen ostean. Gero, Ermuako Kadete A-n hasi nintzen bigarren entrenatzaile, Juanjo López laguntzen. Kadete B-rekin, Kadete A-rekin eta Jubenil A-rekin lehen entrenatzailea izan eta gero, lehen taldearekin hasi nintzen lanean duela 5 urte. Bizitza osoa futboleant, eta urte gehienak herriko taldean eman ditut.

**- Zein izan da entrenatzaile bezala izandako emaitzarik onena?**

Zorionez, oso jokalaria onak izan ditut beti, eta

sailkapenaren gorengo postuetan ibili ohi gara. Emaitzei dagokionez une bat nabarmendu beharko banu, 6 urte atzera egingo nuke. Hain zuzen ere, Jubenilak Euskal Ligara igo zirenean lehen aldiz.

**- Entrenamendu fisikoaz gain, futbolariei baloreak transmititzen saiatzen zara?**

Bai, nire ustez argi dago kirolean emaitzak garrantzitsuak direla, baina benetan estimatzen dut ikustea taldeak alor guztietan eboluzionatzen duela urtetik urtera. Asebetetzen nau jakeak hobeak garela bai futboleant, eta bai talde bezala; 23 jokalaria bat direla, guztiak doazela norabide berean; gehiagotan edo gutxiagotan jokatu arren, elkar errespetatu, lagundu eta gozatzen dutela. Eta hori guztiori, sailkapen-helburu komuna lortzeko nahiarekin.

**- Zelai barruan bizitako momenturik hunkigarriena?**

Momentu zirrarragarri asko izan ditut, zaila iruditzen



Mikel González erdian. Bere ezkerrean Asier Muñoz, taldeko kapitaina; eskuman, Aitor Bouzo, klubeko lehendakaria.

zait bat aukeratzea. Kadete A entrenatu nuen lehen urteko oso oroitzapen onak ditut: kimika berezia sortu zen taldeko guztion artean. Jubenilarekin Euskal Ligara igo ginenean Beasainen, egun go-goangarria izan zen; azken minutuetan irabazten dituzun partiduetan itzelezko poza egoten da aldagelan; futbolari oso maitatuen agurrak... Nire ezkontza egunean jokalaria guztiak ikustea ere oso polita izan zen. Aurtengo kategoria-igoera lortzea espero dut, eta beste momentu ahaztezin bat gehitzea zerrenda honetan.

**- Hori da denboraldi honetako zuen helburua?**

Bai, kategoria-igoera da sailkapen-helburua. Lau

denboraldi daramatzagu lortzeko zorian, eta momentuz ondo sailkatuta gaude aurtengo ere. Talde bezala, gustatuko litzaidake denboraldia bukatzerakoan bai lehen taldeko jokalariek bai lehen taldera igotzear daudenean ere ilusioari eustea, herriko taldean jokatu eta hura defendatzeko ilusioarekin jarraitzea, alegia.

**- Nola ikusten duzu zure burua hemendik 10 urtera?**

Niretzako ez da lehentasuna entrenatzaile profesionala izatea. Egun batean aukera badatorkit, aztertuko dut; baina gaur egun futbolari ordu asko eskaintzen dizkiodan arren, hobbya da niretzat.

Dorleta Vidal



**uriarteasesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

# Hitzez adierazten ez duguna, ez da existitzen

Erraza da bizitzari buruz hitz egitea. Aldiz, nekez normalizatzen dugu heriotzaz hitz egitea, arimaren gaixotasunez (nik esaten dudana bezala). Eta are zailagoa da suizidioaz hitz egitea. Eta hitzez adierazten ez duguna, ez dela existitzen dirudi. Eta adierazte eza horrek min ematen du.

Suizidioa tarteko senide bat galdu dugunok badakigu zelako gogorra den dolua. Eta, gainera, gertutik ezagutzen badugu egunerokotasunari aurre egiteko erantsitako zailtasunak dituzten pertsonen hauskortasuna, berresten dugu gehiegitan, gure senidearen galera traumatikoari bakar-dadea batzen zaiola. Suizidioak edo osasun mentalekin zerikusia duten gaiak gure gizartean tabu eta estigma izatearen bakardadea, hain zuzen ere.

Osasun mentalen estigmaren atzean, argi ikusten da ezjakintasunaren, beldurraren eta aurreiritzien silueta, arimaren gaixotasunekiko eta gaitz hauek pairatzen dutenekiko. Estigmaren kontrako borroka honetan, bat egiten dut nire lagun Carlos Mañasekin. Nire semearekin joan nintzen Mañasek idatzitako *Mi cabeza me hace trampas. Historia de un trastorno bipolar* liburuaren aurkezpena,

eta zera esan zuen bertan: "Desafinatzen duen gizarte batean bizi gara, gainontzekoak gehiegi interpretatzen duen gizartean, besteak oso gutxi ulertzean dituen... Guztiok partekatzen dugun ingurune sozialak eskatzen digu ez garena izatea, eta aldi berean erruduntzat jotzen gaitu garen bezalakoak izateagatik". Aske egiten gaitu gure inguruan daudenen dibertsitatearekiko beste begirada bat izaten saiatzeak, gure aurreiritzien aurka borrokatzeak.

Eta suizidioa da egungo gizarte-etan isilarazitako heriotza handia. Baina kopuruak izugarriak dira. EAEn pertsona batek bere buruaz beste egiten du bi egunetik behin: homizidioen, auto-istri-puen eta genero-indarkeriaren biktimak batuta baino heriotza gehiago dira. Badaude talde eta gizarte mugimenduak ahotsa eman nahi dietenak isilarazitako errealitate hauei. Gizarte-boluntarioen arlotik datozen ahotsak dira batik bat.

Eta eskerrak ematen dizkiet. Ez bakarrik niri eta nire familiari laguntzen ari direlako, baizik eta bere borrokarekin lortzen ari direlako agenda politikoetan prebentzioaren beharra ezartzea, sentsibilizazioaren beharra eta lehen



*Begoña Vesga*

mailako osasun arazo batekiko heziketaren beharra.

Eta, nire ustez, osasun arazo publikoa den heinean, exigitu behar dugu bizitzak erdian jartzen duten politika publikoak. Hau da, bizitzaren babesa izatea oinarri ekonomikoa, eta honek markatzea inbertsioen lehentasunak. Azken finean, bizitza duinen alde egitea. Bere buruaz beste egiten duten gehienek ez dute heriotza nahi, baizik eta sufrimenduari amaiera eman. Arazo soziala da sufrimendu horri baliabideak ez eskaintzea. Salatzeko modukoa da sufrimendua eragiten duten arazoak artatzeko dagoen baliabide urritasuna.

Eta baliabide-eskaintze horretan dago gakoa. Prebentzio protokoloak ez dira nahikoak. Papere-tan idazteaz gain, baliabideak jarri egin behar dira. Agendetan egon beharreko gaia da, ez bakarrik legegileen agendetan, baizik eta aurrekontu-agendetan ere. Hor batez ere.

Niretzako, suizidioaz hitz egitea da, paradoxikoki, bizitzaz hitz egitea. Gure helburua izan behar da bizitzak erdian egotea.

“ Aske egiten gaitu gure inguruan daudenen dibertsitatearekiko beste begirada bat izaten saiatzeak ”

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

*de*

IZASKUN TXURRUKA

*de*

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

## LANGILE BILA

Ermuko Euskaltzaeren Sarea dinamizatzailerik dabil Euskaraldia eta beste hainbat proiektu aurrera eramateko. Pertsona euskalduna, euskaltzalea eta aktiboa behar dugu, dinamizaziorako gaitasuna duena eta bertako egoera soziolinguistikoa ezagutzen duena. Martxotik eta abendura bitarteko lanaldia izango da jardunaldi erdian. Beraz, pertsona egokia zaretela uste baduzue edo pertsona egokia izan daitekeena ezagutzen baduzue, bidali zuen curriculum gure helbide elektronikora: ermuko-euskaltzaleensarea@gmail.com Curriculumak jaso eta aztertu ostean, ahal bezain pronto emango dugu erantzuna.

## LAN BILA

Orduka edo jornada erdiz, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten. Berehalak hasi naiteke. Esperientzia daukat. © 632 415 374

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketarako lanak egiteko. Astelehenerdik ostiralera. Orduka. © 681 310 989.



Otsailaren 4an  
Zorionaaaak Olaia zure 9. urtebetetzean amaren eta aitaren partez! Egun zoragarria izan. Asko maite zaitugu. Mila patxo!!



Otsailaren 21ean  
Izadi Paz Minguez  
Zorionak etxeko sagutuari familixa osuan partez. Urtetxo bat, segi irribarretxo horrekin. Maitxe maitxe.



Martxoaren 1ean  
Eeepaaaaa!!!!  
ZORIONAK ANDER!!!!  
7 Urte handi gure etxeko gizontxoak!!!  
Aupaaaa!! Muxux ta besarkada handiak zutzako etxeko denon partez!!!!  
Ondo pasa egune!!!



Martxoaren 1ean  
Zorionak Telmo zure 8. urtebetetzean. Muxu asko etxeko partez. Ondo pasa!



Otsailaren 8an  
eta martxoaren 24an  
Zorionak Ekia eta lhintza!!  
7 eta 5 urte!!  
Patxo eta besarkada pila familia osoaren partez!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera.

Azken eguna:  
**Martxoaren 18a.**

### Otsailaren 26tik aurrera kobratuko dira Euskal Biruseko bazkide kuotak

Euskal Birusa Euskara Elkarteak otsaila bukaeran kobratuko die bazkideei urteko kuota. Horregatik, helbide edo bankua aldatu dutenek, lehenbailehen jakinarazi beharko diote elkarteari (943 17 93 50 edo [euskalbirusa@gmail.com](mailto:euskalbirusa@gmail.com)). Herrian euskararen erabilera sustatzea nahi dutenek, elkarteko bazkide egin daitezke (35€ urtean, 20€ jubilatu eta ikasleek).



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

**arral**  
aral97.com

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Pazo Señorans
- Txakoli Akarregi
- Añada Real
- Vicente Gandía
- Milana
- Yllera taldea
- Oriol Rossell
- La Loca Juana
- Gomez Cruzado
- Astobiza txakolina
- nitida

[arral@aral97.com](mailto:arral@aral97.com) - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería  
**TITANIC**

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MALLABIA  
1953**

Argazki hau 1953 inguruan aterata dago Artetan. Bertan agertzen dira: Hilario Solozabal, Jose Luis Mugarza, Juan Urkidi, Balbina Milikua, Catalina Zelaieta eta Martina Uriarte.

**ERMUA  
1932**

Esteban Guridi eta Francisca Uribe euren seme-alabez inguruta: Pilar, Pablo eta amaren altzoan, Marce. Laugarrena, Margarita, beranduago jaioko zen, gerratearekin batera. Senar-emazte bien jatorrizko Altsasutik Amurriora joan ostean, Pablo Eskola Armeriara bidaltzeko asmoz, Ermuan finkatu ziren. Aita forjari-maixua zen; amak dendetxo bat jarri zuen Ugaldeneko etxearen beheko aldean, gaur BBK dagoen orubean: Pakarena, oihal-denda eta telefono zentrala izango zen. Bilboko Zaldia argazkilariak erretratatu zituen Ronda kaleko haren estudioan urte horretako San Pedro egunez.



Drogeteniturre, 286 zk.


Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
[www.fisioterapiamanualartros.com](http://www.fisioterapiamanualartros.com)



Otsailaren 6an Zaldibarko zabortegian luizia gertatu zen. Ordutik, haizearen eta uraren kalitatea etengabe neurtzen dihardute, bizilagunen segurtasuna bermatzeko asmoarekin. Uste duzu zabortegiko lur-jausiak ondorioak izango dituela gure osasunean?



■ Bai: 135 boto.  
■ Ez: 12 boto.

Otsailaren 13tik 20ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 147 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474 688819336

Dejate  
**QUERER**  
BERRIA BERMUA

**URRETA** burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervillak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KRABI**  
ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**ZINEA**

**Hilaren 1ean eta 2an:**  
"Aguas oscuras" +  
"Malasaña 32"

**Hilaren 7tik 9ra:**  
"Escándalo" + "Adu"

**Hilaren 14tik 16ra:**  
"Hasta que la boda nos  
separe" + "Judy"

**Hilaren 21etik 23ra:**  
"El plan" +  
"La llamada salvaje"

**Hilaren 28tik 30era:**  
"The Gentlemen" +  
"Invisibles"  
Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 5:**  
"Las golondrinas de  
Kabul"

**Hilak 12:**  
"Reina de corazones"

**Hilak 19:**  
"Arima"

**Hilak 26:**  
"La camarista"  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO  
ZINEA**

**Hilak 1:**  
"Las aventuras del  
Dr. Doolittle"

**Hilak 8:**  
"Volando juntos"

**Hilak 15:**  
"Sonic"

**Hilak 22:**  
"Quackers"

**Hilak 29:**  
"Boonie Bears Abentura  
Historiaurrean"  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**ANTZERKIA**

**Hilak 6:**  
"Elisa y Marcela",  
A Panadaria taldea.  
22:15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 10€

**ERAKUSKETAK**

**Hilak 1:**  
Argazkiak: "Ermua  
Antzokia 2019".  
Oscar Blancoren lanak.  
18:00etatik 20:00etara.

**Hilaren 2tik 15era:**  
Argazkiak: Lara  
Kaminskyren lanak.  
18:00etatik 20:00etara.

**MUSIKA**

**Hilak 7:**  
Musika eta dantza  
jaialdia: Andaluziako  
eguna. 16:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera doan.

**Hilak 13:**  
Kontzertua: Dani  
Fernández.  
22:15ean. Ermua  
Antzokian.  
Sarrera: 15€

**Hilak 14:**  
Kontzertua:  
El mastuerzo,  
León Chávez y  
Los prófugos  
del manicomio  
(Mexico Rebelde  
jardunaldia).  
19:00etan. Orbe  
Kardinalaren plazan.

**Hilak 14:**  
Blues kontzertua:  
Ash Grunwald Band.  
20:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 10€

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK**

**Hilak 7:**  
Haurrentzako ipuin-  
kontaketa ingelesez.  
17:30ean. Lobiano  
Kultur Gunean.

**Hilak 27:**  
Haurrentzako ikuskizuna:  
"Bizi dantza", Pirritx,  
Porrotx eta Marimotots.  
17:00etan eta  
19:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 6€

**Hilak 28:**  
Haurrentzako ipuin-  
kontaketa. 17:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 7:**  
Sagardo eguna: hainbat  
ekitaldi. 12:30etatik.  
Orbe Kardinalaren pla-  
zan.

**Hilaren 9tik 15era:**  
Kazolatxoan astea.  
Ermuko tabernetan.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**ALBOKA**



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**irale**  
 Hortz Klinika  
 Clínica Dental  
 C/ Zeharkalea, 8  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 Tel: 943 17 71 94

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta implante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berritu eta handitu dugu

San Inazio 4      Tel.: 943 030 512  
 Ermua              niklinika@gmail.com

# OSASUN GIDA

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89

Sexto Centenario 13, behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen  
 den odontologia  
 La odontología  
 que se adapta a tí

**SAN PELAYO**  
 HORTZ KLINIKA Y CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04  
 ✉ info@clnicasanpelayo.com  
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5  
 48260 Ermua (Bizkaia)

**FUB** Mediku psikiatra - Psikosomatika  
 Psikoterapia psikoanalitikoak

**FERNANDO URIZAR BARANDIARAN**

Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
 Bailen Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo  
 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

# berbetan

## jar duna dia

euskararen gaineko gogoetak

MARTXOAK

4

19:00



LOBIANO  
KULTUR  
ETXEAN

"Berriak jaio ginen" Jon Maia  
Liburuaren aurkezpena eta solasaldia

LOBIANO  
KULTUR  
ETXEAN



MARTXOAK

12

19:00

"Kontrako ezarririk" liburuan oinarrituriko  
bertso-saio literarioa eta tertulia.  
Uxue Alberdi eta Ane Labaka. Gai jartzaile Maite Berriozabal

antolatzaileak



babeslea

